



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/02/07 Udaletxean 18.00-19:30



Gaurkoan bildu gara,

- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Joseba Aranburu (Alkatearen izenean)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Carlos Gonzalez (Irabazi)
Adur Ezenarro (Bildu)
Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
Iñaki Dubreuil (PSE)
Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Aurreko bilerako duden eta galderen erantzuna
3. Edukiontzien bidezko sistemaren jarraipena: Iturtxo (Sasietako txostena)
4. Landarlanen eskaera: Ordiziako Udalaren sarrera eta gastuak hondakinen sorrera eta sailkapenagatik
5. Ordenantza
 - a. EAJren eskaera: Zerbitzuberuaren parte hartzea hondakin mahaiari

Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta onartu da. Akta web orrialdera igoko dugu.

EAJ-ren eskaera

Ordenantzaren ingurua ekarpen hauek egin ditu:

- 1- Zerbitzuberuaren parte hartzea beharrezkoa da hondakin mahai honetan.
- 2- Ordenantza eredu oso orokorra da, hondakinen bilketako aukera guztiak azaltzen dira.
- 3- Sasietako ordenantza dugu. Sasietak ematen du zerbitzua, honen ordenantza eginda dago. Sasietako ordenantza 2015-01-08an argitaratuta dago. Ordenantzan bi aukerak azaltzen dira: atez atekoa eta edukiontziena.
- 4- Bi ordenantza daude: etxeetako eta industrietako hondakinena.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/02/07 Udaletxean 18.00-19:30



5- Zerbitzuburuaren esperientzia kontutan hartuta, Sasietako ordenantzan zein aldaketa egingo lukeen jakitea egokia izango zen.

Sasietako ordenantzan errefusaren bilketa ez dago ondo zehaztuta eta ondorioz aldatu egin behar da.

Sasietako ordenantza eredu bezala erabili eta honen gainean aldaketak egitea proposatzen da.

Hasieran Sasietako ordenantza eredu bezala erabiliko genuela erabaki genuen baina Sasietako ordenantza osoa aldatu behar zuela esan zuen eta ez zen egokia ikusi.

Merkataritza eta ostalaritzan hondakinen bilketa lehen atez ate egiten zen. Atez ateko bilketak jarraitzen du baina orain hondakin gutxi sortzen duen komertzioari aukera ematen zaio hondakinak edukiontzietara ateratzeko.

Pertsona asko falta dira bilera honetan eta denen artean hau lantzea erabaki da.

Irabazi

Aurreko bileran edukiontzien ordainketaren inguruan hainbat azalpen egin ziren eta Irabaziko Carlos-ek erantzun egin nahi du. Gaurko bilerara lanagatik ezin duenez azaldu testu bat bidali du irakurtzeko.

Mahai honetan jende asko falta da eta edukiontzien ordainketaren gaia atera zuen pertsona ere gaur falta da. Hurrengo bileran Carlos-ek berak emango ditu azalpenak edo bestela, berak bidalitako testua irakurriko da.

Hurrengo bilerara emango da gaia.

Gai ezberdinen inguruko informazioa

Aurreko bileran hainbat gai atera ziren eta hauen inguruko informazioa eskatu zen.

ZAKARRONTZIAK

Zerbitzuburuak egoera txarran (zakarrontziak poltsaz beteta, gainezka,...) dauden zakarrontzi puntu hauen zerrenda eman du:

1. Urdaneta kalea:
 - a. Puerta del sol inguruan (Cabina inguruan)
 - b. Azkeneko zakarrontziak (Mariaratsen)
2. Goierri kalea: P21
3. San Ignacio kalea



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/02/07 Udaletxean 18.00-19:30



4. Filipinas kalea :
 - a. Boxing elkartearen parean
 - b. Gaztetxe zaharraren parean
5. Nafarroa etorbidea: Oreja parkera ematen duen oinezko zubian

Joseba Aranburuk jarraian dagoen puntua zehaztu du:

6. Lukusin plaza barruan

Aurre egiteko hartu den erabakia:

ZAKARRONTZI GUZTIETAN NOTA BAT GAINEAN JARRIKO DA ESANEZ POLTSAK EZIN DIRELA BARRUAN UTZI.

EDUKIONTZIAK

Edukiontzi kanpoan poltsak uzten dira eta jarraipen berezi bat egin da. Pertsona batzuk identifikatu dira eta hauekin pertsonalki hitz egingo da. Batzuk atzeritarrak dira. Helburua, informazioa ematea hondakinen bereizketa nola egin behar den.

SAN JUAN EDUKIONTZIAK

Biltzaileekin hitz egin dute eta esan dute ez dutela bolumen aldetik ezer nabaritzen. Agian zerbait bisuala izango dela esan dute.

San Juanen errepide ondoko edukiontziengatik ez da aipamen hau, goiko aldean dauden (txaletetako bidean) edukiontzi berdeengatik da. Sasietak erabiltzen ditu eta kandadu batekin daude itxita.

ORGANIKOAREN ZAKARRONTZIN PLASTIKOZKO POLTSAK



Organikoaren zakarrontzin plastikozko poltsak jartzen dira eta organikoazko poltsa ez, oso garestia delako.

Plastikozko poltsan biltzen dute eta ondoren hustu egiten dute.

Gainera poltsa organikoak pisuarekin apurtu egiten dira.

SARRAILA BERRIAREN BALORAZIOA

Sarraila berria jarri dute, arazo asko izan dituzte beraiek eta sarraila egin zuten enpresak espero ez zituztenak. Jarraipen berezi bat egiten ari dira, egoera hobetzen ari dela ematen du.

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">2017/02/07 Udaletxean 18.00-19:30</p>	
--	---	---

Sarraila bat gaizki dagoela detektatzen denean Sasietari abisatu eta datu hauek emateko esan dute:

- Sarraila gaizki non dagoen
- Detektatu duen pertsonaren izen-abizenak eta telefonoa

Kasu batzuetan sarraila gaizki dagoela esaten da baina benetan txartela gaizki edo zaharrarekin joan dira edukiontzia irekitzera eta horregatik ezin izan dute hau ireki. Hau ekiditeko bi datuak eman behar direla esan du.

Idoiaga plazan beti edukiontzi bat irekita zegoen baina orain konponduta dago.

Gaiari jarraipen bat egingo zaio eta Sasietari galdetu behar zaio noizko izango duten sistema egokia.

KONPOSTAREN FESTA

Konposta banatzearen inguruan, ez da horren erraza. Printzipioz konposta egiten dutenen artean banatzeko ez dago arazorik baina hirugarrenengo batzuei banatzeko, legeak eskatzen du prozesuan zehar baldintza batzuk lortu izana: 60 ° C -ko tenperatura egun batzuetan zehar (homologatuak dauden termometro batzuekin neurtuak...). Auzokonpostak ez ditu baldintza hauek betetzen. Egia da herri askotan egin direla konpost banaketak herritarrei. Baina jakin behar da legalki ez dagoela ondo.

Ordenantzan konpostaren gaia sartu beharko da eta erregulatu egin beharko da. Legazpin ordenantza dute eta konposta banatu aurretik analisiak egiten zaizkio.

Auzokonposta egitera herritarrak animatzeko zerbait egin beharra dago. Beste herrietan nola egiten duten jakitea ere ondo egongo litzake.

Konposta Udalak lorazaintzarako erabiltzen du eta auzokonpostan parte hartzen dutenen artean banatzen da.

IBARBIA KALEA

Sasietako erantzuna:

Kale honetan begiratzen egon ziren baina ezinezkoa da edukiontziak jartzea. Lehen edukiontzi berdea zegoen bakarrik eta egunero biltzera joaten zen kamioia, lurretik poltsak biltzen zituen kamioia zen.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/02/07 Udaletxean 18.00-19:30



Aukera bakarra goiko aparkamentuan edukiontzi guztiak jartzea eta kamioiarentzako maniobrak egiteko lekua uztea. Azkenik, aparkamentu guztia beraiantzako jartzea.

Arrasaten edukiontziak mugitzeko lanzadera bat dute. Edukiontzia kamioira gerturatzen dute.

Sasietako erantzunarekin, Egutera kalean aparkalekuak kentzearena, gai hau mugikortasun mahaira emango da bertan aztertzen ari baitira Ibarbia kalean aparkamendu gehiago lortzeko aukera.

ARRASATE

Errefusaren edukiontziaren argazkiak eskatu eta Sasietari bidaliko zaizkio.



Sasietak arazo bat ikusten du, Arrasaten edukiontziak egunero irekitzen dira eta ez dago arazorik baina Ordizian astean bitan irekitzen da eta ate hau irekita utzi dezakete.

ITURTOKO PUNTUA

Sasietak Iturtxoko egoera antzekoa ikusi du Juan Amezketa kalean. Bi kaleetan neurri hauek ezarriko dira:

- Eskutitzak inguruko bizilagun eta tabernetara
- Kartela Ordiziako atari guztietan
- Lonak bi puntuetan

LANDARLANEN ESKAERA

Landarlanek Sasietari jarraian dauden datuak eskatzeko esan du:

- 2016ko hondakin bilketagatik frakzioka ordaindu dena: bereiztuta atez atekoa eta edukiontzien faseak.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/02/07 Udaletxean 18.00-19:30



- 2016ko diru-sarrerak frakzio ezberdinengatik: bereztuta atez atekoa eta edukiontzien faseak.

Komertzioetako datua etxebizitzetako datutik bereizten hasi al diren galdetuko da eta datua badute pasatzeko.

ORIA IBAIA

Oria ibaiko zuhaitzak plastikoz beteta daude. Garbiketa sinbolikoa egin zen baina hau ez da nahikoa. Urtean sasoi bakoitzean garbiketa egin beharko litzateke.

GFAk itsasoan garbiketa kanpaina bat egin behar dute.

Goiekik orain dela bi urte garbiketa egin zuen. Eskualde mailako ekintza egin beharko litzateke.

Konzientziazio kanpainak egin behar dira. Ibaiaren argazkiak jarri daitezke aldizkarian.

Goiekiri galdetuko zaio garbiketak egiten jarraitzen al duen.

Ordenantza

Hurrengo bileran lantzen hasiko gara.

Hurrengo bilera

Martxoko bilera: martxoaren 7an arratsaldeko 18:00etan.